



II. ERANSKINA

1. mota

Oinarrizko Ikerketako eta Ikerketa Aplikatuko proiektuak  
2009



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 20
1.-	Proiektuen kalitate zientifikoa eta teknologikoa: interes zientifikoa eta ekonomikoa, proposamenaren berezitasuna eta izaera berritzailea, metodologiaren eta tresna-tekniken egokitasuna.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Diru-laguntza publikoa eskatzen denez, garrantzizkoa da zehaztea ea funtsean ezagutza berria edo berritzailea sortuko den, halako arrisku batekin, edo, bestela, proiektuaren helburua ote den lan bat ebatzi, zerbitzua eman edo aurretik zeuden ezagupenen garapena edo aplikazioa egitea, jatorrizko ezagupen berririk sortu gabe, halakoetan ez baita finantzaketarik eman behar.	
2)	Proiektuaren xedea adierazten da, labur eta zehatz adierazi ere, eta argi eta garbi erdiets daiteke proiektuaren amaieran, helburuak bete ondoren	
3)	Helburuak zehatzak, doiak, neurgarriak eta iristeko modukoak dira, eta proiektuaren xedea lortzeraino iristeko bidea ematen dute. Proiektua osatzen duten mugarrien ezaugarri tekniko espezifikoak edo eskakizunak definitzen dira, jarritako helburu (helmuga) bakoitzaren eskakizunak eta ezaugarri teknikoak zehaztuz, halako moldez non, amaitzen denean, helburua lortu izanaren segurtasuna izango den.	
4)	Badakite gaia zertan den, eta proiektuaren xedetik gertu dauden emaitzak lortzeko egun erabiltzen diren aukerak ere ezagutzen dituzte.	
5)	Hobetsitako aukeraren faktorerik berritzaileenak definitzen dira, abantaila zientifiko eta teknologiko nabarmenak erakutsiz.	
6)	Metodologia eta tresna-teknikak argi eta garbi lotzen zaizkio planteaturiko helburu bakoitzari.	
7)	Erabili beharreko metodologiak gaur egunekoak dira, egokiak, eta helburuak lortzeko behar diren emaitzak ateratzea edo sortzea bermatzen dute. Metodologia jakin bat erabiltzea justifikatzen da	
8)	Ikerketa-kostuak eta espero diren balizko onura ekonomikoak proportzioan daude.	
9)	Ikerketa-arriskurik bada, helburuetakoren batean porrota izateko arriskuak neurtuta/kalibratuta daude, eta gorabehera hori gainditzeko aukerak ere badaude.	
10)	Argi eta garbi ikusten dira proiektuaren erabilgarritasuna eta aplikazio industrialak eta sozioekonomikoak.	
11)	Bada gaiari buruzko aldizkari espezializatuetan argitalpen zientifikoren bat egiteko aukera.	
12)	Patenteren bat edota jabetza intelektualeko erregistroren bat egitea espero daiteke.	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 15
2.- Proiektuaren kudeaketa-plana		Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Helburuetako bakoitzari lotutako zereginak edo atazak egoki deskribatzen dira, eta erabili beharreko metodologia kontuan hartuta. Nahikoak dira, osoak eta argi eta garbi bereizita daude.	
	Zereginak edo atazak jarduera zehatz eta bereziak izan behar dute, iraupen mugatukoak (orientabide gisa, 50 ordutik beherakoak), eta, oro har, bide emango dute metodologia ikertzaile batekin edo birekin aplikatzeko, helburuetako bakoitza garatuz.	
2)	Zereginak edo atazak denboraren arabera daude planifikatuta, kronograma baten bidez. Banaketa egokia da, segidari eta iraupenari begiratuta.	
3)	Sortutako zereginak ikertzaile bakoitzari nola esleitu zaizkion adierazten al da? Argi ikusten al da bakoitzaren eginkizuna eta betebeharrak zeintzuk diren? Ez da onartuko zenbait ikerlari zeregin beretara atxikitzea sistematikoki, ardurak edo erantzukizunak zehaztu gabe.	
4)	Ikertzaile bakoitza gai al da eman zaizkion zereginak egiteko?	
5)	Ikertzaileen dedikazioa egokia da, behar bezalakoa; hau da, ez gutxiegia, ez gehiegi, eta ez dago aurreikuspen-faltarik.	
6)	Proiektuaren mugarriak zehaztu dira, helburuak edo helburu-multzoak partzialki erdietsi ondoren: mugarriak erdiesteari lotutako tarteko txostenak egitea aurreikusi da.	
7)	Aurreikusi al da proiektua errebisatzea (helburuak, metodoak...) mugarriak erdietsi ondoren?	
	Aurreikusi al da koordinazio-bilerarik, edota emaitzak parte-hartzaile guztien artean bateratu edo eztabaidatzekorik?	
	Argi eta garbi definitzen al dira proiektuaren zuzendaritza-funtzioak, dagozkien zeregin, gastu eta ordu-dedikazioarekin?	
8)	Eskaria egin duen zentroaz edo laborategiaz kanpoko zentroetan edo enpresetan egingo diren jarduerak, edota halako datu- edo lagin-hartzeak guztiz integratuta daude kronograman eta kudeaketa-planean. Kanpoko jardun horren ondorioz proiektuaren kudeaketa eta/edo garapena arriskuan jartzeko aukerak gutxitu egin dira.	
9)	Kudeaketa-plana koherentea da, egingarria eta xedea aurreikusitako epean lortzeko aukera emango du	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 15
3.-	Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitae-an azaldutako argitalpen zientifiko eta patenteena ere.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Ikerketa-taldeak parte hartzen al du erkidegoko, estatuko edo Europako ikerketa-sareetan? Horietako bat bikaintzat jota al dago?	
2)	Ikertzaileek euren prestakuntza edo ikasketa guztiak, edo horietako batzuk, nazioarteko ospea duten zentroetan egin al dute, hala estatuan nola atzerrian?	
3)	Ala alderantziz, orain lanean ari diren zentro berean hartu du prestakuntza taldeak?	
4)	Bilakaera positiborik ikusten al zaio taldeari, bere proiektuak eta argitalpenak kontuan hartuta?	
5)	Taldea nagusiki finantzatzen den proiektuak estatuko edo Europako lehiaketa-deialdietatik datoz, ala toki-mailakoak edo lehiakortasun gutxikoak dira?.	
6)	Taldea egiten ari den argitalpenen kalitatea nolakoa da, bere alor zientifikoaren batez bestekoa kontuan hartuta?	
7)	Bere alorreko aldizkari garrantzitsuetan edo SCIn argitaratu du.	
8)	Zein da garrantzizko argitalpenen urteko tasa?	
9)	Ponentziak eta/edo konferentziak aurkezten al ditu bere alorreko kongresu inportanteetan? Zer maiztasunarekin?	
10)	Ikertzaile nagusiak arrakastaz zuzendu ditu beste proiektu batzuk ikerketa-taldearekin, finantzaketa publikoa jasota, eta maila zientifiko eta tekniko egokia du.	
11)	Taldeak aurkezten dituen argitalpenak interesgarriak eta garrantzitsuak dira, eta zientzia eta teknikaren alorreko gaitasun nahikoa erakusten dute, proiektu berriek ekiterakoan arrakasta bermatzeko moduan.	
12)	Proiektuak egiten ari dira I+G Plan Nazionalean edota Europako 6. PMan	
13)	Zer irizten diozu ikerketa taldearen kalitate zientifikoari, bere zientzia-alorrekoen batez bestekoa kontuan hartuta: goitik dago, batez bestekoaren parekoa da, ala behetik dago?	
14)	Taldeak aski gaitasunik al du proiektua atarramentu onez garatzeko? eta emaitzen kalitate ona bermatzen al du, baita xedea lortuko dela ere?	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 10
4.-	Ikertzaileek gaiari buruz duten aurre-esperientzia.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Ikerketa-taldea lehenago ere aritu da proiektuaren xedean, finantzaketa publikoaren edo kontratuen bitartez.	
2)	Ikerketa-taldeak gaiari buruz egin dituen argitalpenak aurkeztu ditu, beste zentro batzuekin aritu da lanean edo aurretik ere emaitzak atera ditu.	
3)	Aurkeztu duten dokumentazio kontuan hartuta, esan daiteke ikerketa-taldeak baduela proiektuari heltzeko adina ezagupen.	
4)	Proiektuaren eskabideak erakusten duenez, gaiari buruzko bibliografia eta aurrekariak ongi ezagutzen dituzte.	
5)	Erabili nahi diren metodologiak lehenago lan batzuetan ere erabiliak ditu ikerketa-taldeak.	
6)	Ikerketa-taldea orekatuta dago, eta behar bezala heltzen die lan-alor guztiei, eta metodologia eta tresna-teknika guztiak kontrolatzen ditu.	
7)	Ikergaia eta metodologiak ondo ezagutzen dituela erakutsi du ikertzaile nagusiak.	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 15
5.-	Lehenagoko deialdietan finantzaturako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu eta zientzia-emankortasunaren maila.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Agerian utzi dira taldeak edo taldeek azken urteotan finantzatuta izan dituzten proiektuak, baita proiektu horietan erdietsitakoak ere: patenteak eta dagozkien argitalpenak	
2)	Aurrerapena ikusten da proiektuetan jorratutako gaien kalitateari eta garrantziari dagokienez, baita ateratako emaitzen kalitatean ere.	
3)	Proiektuen inbertsio eta kostuak, eta ateratako emaitzak, eskabidearekin batera aurkezturiko dokumentazioan adieraziak, elkarren proportzioan daude.	
4)	Ikerketa-taldeak atarramentu ona atera dio aurreko finantzaketari, emaitzen eta argitalpenen bidez.	
5)	Taldeak baditu garrantzizko argitalpenak, SCIn edo antzekoetan.	
6)	Urteko edo proiektu bakoitzeko argitalpen bana egiten dute gutxienez aldizkari ospetsuetan.	
7)	Zehaztu ikerketa-taldeak bere lanak argitaratzeko erabiltzen dituen aldizkariak bere eremuan duten garrantziaren batez besteko maila (altua, ertaina, apala).	
8)	Artikuluen argitalpenaren maiztasuna zehaztu lehenago adierazitako maila bakoitzerako: urteko publikazio kopurua, eta proiektuko publikazio kopurua.	
9)	Azaldu ea proiektuen ondorioz ezagutzak enpresei edo gizarte-eragileei helarazteko ekintzarik ezarri ote den, bai kontratuen bai bestelakoen bidez.	
10)	Patenterik erregistratu al da ikerketen ondorioz? Zer mailatan: estatuan, Europan, nazioartean (PCT)	
11)	Egindako ikerketatik ateratako produkturen bat merkaturatzen ari al dira? Zeintzuk dira emaitza ekonomikoak? Zer lurralde-eremutan merkaturatzen da?	
12)	Spin-off enpresarik sortu al da garatutako ikerketen ondorioz?	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 5
6.-	Aurreikusitako finantza-baliabideak proposatutako helburuei egokitzea.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Laguntzaileak eskatu badira, ematen zaion dedikazioa behar-beharrezkoa da, lanen eta eginkizunen banaketaren arabera	
2)	Laguntzaileak eskatu badira, eman zaizkion zeregin edo atazak egokiak dira prestakuntza jasotzen ari den gazte batentzako, eta ez dagozkio ikertzaile aditu batek egingo lituzkeen lanei.	
3)	Proporzio egokia dago ikertzaileen dedikazioaren eta bekadunen dedikazioaren artean (ikertzaile EJC bakoitzeko, bekadun laguntzailearen EJC bat, gutxienez).	
4)	Atazei lotutako material suntsikorren kostu-aurreikuspena zuzena al da? Aurreikuspen eta balorazio espezifikoak egin al dira –estimazio orokorra baino gehiago–, proiektuak urte bakoitzean dituen beharrei buruz?	
5)	Material inbentariagarrien kostuaren aurreikuspena zuzena al da? Erosi nahi den material inbentariagarria beharrezkoa da, eta ez dago halakorik inguru hurbilean. Adierazi zure iritzia: nahitaezko, beharrezko, edo egoki ote den, ala ez horren nahitaezkoa. Bat baino gehiago eskatzen bada, zenbat elementu eskatzen diren adierazi.	
6)	Material inbentariagarriarik eskatuz gero, merkataritza-etxeen proformako fakturak aurkeztu al dira? Prezioak egokiak al dira?	
7)	Atazekin zerikusia duten bidaien kostuen aurreikuspena egokia da. Proiektuaren helburuak betetzeko behar diren bidaiak dira.	
8)	Foro, mintegi edo kongresuren batean parte hartzea aurreikusiz gero: zehaztu al dute zer den eta non egingo den? Ondo al datorkio proiektuari, eta datak kontuan hartuta, proiektuak une horretan izango duen garapenari egokitzen al zaio?	
9)	Bidaien balorazio ekonomikoa egokia al da? Kostuak murriztu al daitezke... beharrezkoa al da adierazi diren pertsona guztiak joatea?	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 10
7.- Beste erakunde batek finantzari bezala parte hartzea.		Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Proiektu bera erakunde publiko batek lehiaketa-deialdiaren bidez finantzatzen badu: argi eta garbi ikusten da deialdia zein den eta deialdi horretan finantzaturako eskabidea, onespenez ebazpena eta kontzeptuen arabera banaketa aurkezten dira?	
2)	Argi eta garbi bereizten dira aurrez finantzaturako proiektuaren helburuak eta oraingoarenak, berdina bada, ala helburu batzuk gainjarri egiten dira? Zein helburu eta zein neurritan gainjartzen dira?	
3)	Ebaluatzailearen iritziz, zein dira bi proiektuen arteko desberdintasunak? Desberdintasunik izanez gero, erabat justifikatzen dira, proiektu honek ezagupenean aurrerapauso handia suposatzen du, ala errepikatze hutsa da?	
4)	Elkarren artean finantzaturiko proiektuaren onarpen-dataren eta oraingo betetze-mailaren arabera, ebaluatzailearen ustez, nola ulertu behar dira bi proiektuak? Proiektu bera direla esan daiteke? Proiektu osagarriak? Elkarren segidakoak? Gainjarriak?	
5)	Ebaluatzailearen ustez, esan liteke proiektu hau, aurrez finantzaturiko proiektu bati dagokionez, baliabideak edo finantziak metatzeko modua baino ez dela, ezagupenean aurrerapauso nabarmenik eman gabe?	
6)	Ebaluatzailearen ustez, esan liteke beste erakundeak diruz lagundutako proiektuaren finantziak eskasa dela dagokion eskabidean zehaztutakoarekiko eta horrek justifikatutako lukeela eskabide hau? Zein neurritan eta zein alderditan?	
7)	Laguntzaile edo bekaerak eskatuz gero, elkarren artean finantzaturiko proiektuan ere eskatu zen? Zer dela eta eskatzen da deialdi honetan?	
8)	Elkarren artean finantzaturako eskabidea, horren helburuak, jarduerak eta finantzaturiko kontzeptuak ezagunak direnez, zein kontzeptu finantzatu behar dira oraingoan, ebaluatzailearen iritziz, justifikatuta baitago, eta zein kopururekin?	
9)	Eskatutako bidaiak proiektu honetan burutu beharreko jardueraren barrukoak dira, elkarren artean finantzaturako proiektua beste zentro batzuekin koordinaturiko proiektua bada ere?	
10)	Uler liteke nolabaiteko gainfinantzaketa-arriskua egon daitekeela proiektu hau diruz lagunduz gero? Adierazi zein mailatan eta hori nola saihestu.	



IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpideari dagokion gehieneko puntuazioa: 10
8.-	Ikertzaile-taldea diziplina askotakoa izatea.	Ebaluazioan emandako puntuazioa:
1)	Jorratuko den gaiak ikuspegi multidiziplinarra eskatzen al du?	
2)	Metodologia desberdinak erabili behar al dira proiektuen helburuak erdiesteko?	
3)	Ikerketa-taldeak ba al du benetako giza-ekipo multidiziplinarrik, kideak elkarren osagarri izanik, eta erredundantziarik gabe?	
4)	Taldekideen ekarpena simetrikoa al da, xedea lortzeari dagokionez? Hala ez bada, denen ekarpenak ba al du abantaila argirik?	
	Talde ezberdinen ezagutzak modu orekatuan bateratzen al dira helburu komunetan, ala elkarrekin zerikusi eta eragin gutxi duten lanen pilaketa da?	
	Taldeen lanak elkarren mendekoak al dira, eta hala bada, burutze- edo gauzatze-segida zuzena al da?	
5)	Multidiziplinartasunak eragindako zailtasunak konpontzeko moduan eratu al da kudeaketa plana? Neurri zuzentzailerik hartu al da?	
6)	Zein da multidiziplinartasunak dakarren ekarpenik berriena edo garrantzitsuena?	
7)	Ikerketaren emaitzen argitalpen multidiziplinarrak egitea aurreikusi da	
8)	Ikerketa-taldeen ba al dute esperientziarik ikerketa-lan multidiziplinarretan?	